## Santa Barbara-Irimo zirkularra



**P. Aparkalekua.** Urretxuko Santa Barbarako aparkalekuan utziko dugu autoa.



**1. Hasiera puntua.** Aparkalekuan bertan emango diogu hasiera ibilbideari (604 m.). Irimo mendiari buruzko informazio panelaren ondoan dauden eskaileretatik gora hasten da bidea.



**2. Ipeñarrieta jauregia.** Abiatu eta berehala, Ipeñarrieta jauregi-baserria ikusiko dugu eskubitara. XVI-XVII. mendeetan hainbat gortesauren bizitoki eta bidaiari entzutetsuen ostatu izan zen.



**3. Iturraundiko hegia.** Bidean aurrera jarraituz, Iturraundiko hegiko bidegurutzera iritsiko gara. Igoerarako, eskubira doan bidetik jarraituko dugu. Beherakoan bidegurutze honetara iritsiko gara atzera.



**4. Lizarriturri iturria.** Urretxuarren iturri kutuna da, pinudi baten barrenean (712 m.). Urretxuko mendizale talde batek eta auzoko baserritar talde batek eraiki zuten 1936an, inguruan isurtzen diren urak bideratzeko. Emari handiko iturria da..



**5. Lizarriturrietako bordak.** Lizarriturritik ezkerretara egin, eta berehala bi bordarekin egingo dugu topo, biak bidezidorraren ondoan, ezker-eskubi.



**6. Bidegurutzea pinudian.** Eskubiko bidezidorrean gora egin beharra dago.



**7. Urkieta.** Bidegurutzea dago Urkieta izeneko parajean. Eskubitara egingo dugu, bide nagusiari jarraituz. Segituan, ordea, bide nagusia utzi, eta eskubitara dagoen bidezidorra hartu beharra dago.



**8. Irimoko gurutzea eta aterpea**. Irimoko gurutzera eta aterpera iritsi gara (852 m.). Mendizaleentzat babesa eta gurutzearen oinarria izateaz gain, burdinazko gurutze zaharra du gainean. Auzolanean egin zuten baserritarrek eta kaletarrek, hilabete eskasean, 1955an.



**9. Bidegurutzea Irimorantz.** Irimo gurutzetik jaitsi, bidezidorra hartu eta berehala bitan banatzen da. Eskubialdekoa hartu beharra dago, gorantz.



**10. Irimoko gailurra.** Minutu gutxiren buruan iritsi gara Irimoko gailurrera (902 m.), Zazpi punten bideari ekinez. Beheko bailaren eta Aizkorriren eta Bizkai aldeko mendien ikuspegi dotorea dago bertatik.



**11. Trintxuleku gaina.** Irimotik 500 bat metrora dago Trintxulekuko gaina (865 m), gailurreriko bidezidorrean aurrera joanda.



**12. Mugarrisakon.** Trintxulekutik Mugarrisakonera (823 m.) beste laurehun metroko bidea dago. Zuhaitzez inguratutako eremua da. Hemen ere Irimo-Meaka zentral eolikoaren informazio-protesta kartela dago: "200 metroko dorre eolikoaren plataforma".



**13. Meakako gaina.** Mugarrisakonetik 300 metrora dago Meakako gaina (833 metro, bidezidor estuan zertxobait gora eginda.



**14. Bidegurutzea pinudi bukaeran.** Meakatik behera egin beharra dago bidezidorrari jarraituz, hasieran eremu garbian, gero pinudi baten barrenean. Mendi pista batzuekin egingo dugu topo, eta ezkerretara behera doana hartu beharra dago..



**15. Bidegurutzea Kateaga alderantz.** Pista behera eginez beste mendi pista batera iritsiko gara. Pista horretan ezkerretara hartu beharra dago Kateaga alderantz.



**16. Arkaitzeta.** Mendi pistan ibilera erosoan Arkaitzetara iristen da (736 m.). Santa Barbara adierazten duen bideari jarraitu behar zaio abiapuntura iristeko, beherantz..



**17. Iturraundi iturria.** Sasiolatik berrehun metrora dago Iturraundi iturria (690 m.). Harrizko horma batekin ederki babestuta dago.



**18. Iturraundiko hegitik itzulera.** Gorakoan pasatutako Iturraundiko hegitik behera egin beharra dago Santa Barbarara iristeko. Ipeñarrieta jauregiaren, Urretxu-Zumarragaren eta Aralarren bista ederrak daude..



1. Amaiera puntua. Santa Barbarako aparkalekuan.



## SANTA BARBARA

Santa Barbara baseliza, aterpetxe-taberna eta merienda-leku bat ditu. Baseliza 1540. urterako eraikita zegoen baseliza –Martin Elizaldekoa eta Miguel Altzolakoa zumarragar arotzek egin zuten zura lana–. Taberna beranduagokoa da, baina dokumentatuta dago 1893tik egiten dela bertan San Juan eguneko erromeria.



## LIZARRITURRI ITURRIA

Urretxuko gazte talde batek Txindoki Mendigoizaileen Taldea izeneko elkartea sortu zuen 1935ean, eta hurrengo urtean, 1936ko ekainaren 28an, Lizarriturri inguruan isurtzen ziren urak bideratzeko iturria eraiki zuten inguruko baserritarren laguntzarekin. 1986ean, 50 urtera, beste plaka bat jarri zuten Urretxuko Mendigoizaleek. Emari handiko iturria da.



## IRIMOKO ATERPEA ETA GURUTZEA

Irimoren ikurra da. Mendizaleentzat babesleku eta gurutzearen oinarri da aterpea. Burdinazko gurutze zaharra nabarmentzen da. Aurretik zurezkoa egon zen, eta hori aterpe barruan dago gordeta. Auzolanean egin zuten baserritarrek eta kaletarrek, hilabete eskasean. 1955ko abuztuaren 4an hasi ziren eraikitzen 67.000 pezetako aurrekontuarekin, eta omenaldi xume bat eginez bukatu zuten 1955ko irailaren 11n. Begiratoki aparta da.